


Euskal AEko merkataritza-sektoreko salmentak % 2,1 jaitsi dira 2024ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten atzerakada % 0,1ekoa izan da

Eustaten datuen arabera, Merkataritza sektoreak (*Handizkako merkataritza, Txikizkako merkataritza eta Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* barne hartzen dituenak) % 2,1 egin du behera urte artean 2024ko lehen hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak kenduta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 0,1 jaitsi dira 2024ko lehen hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea

Merkataritzaren barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren* sektorean, % 9,6ko hazkundearekin. Aldiz, *Handizkako merkataritzan* eta *Txikizkako merkataritzan* salmentak % 4,9 eta % 0,8 murriztu dira, hurrenez hurren, hori guztia prezio konstanteetan eta egutegiko ondorioak kenduta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaroen eragina kenduta, *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan* salmentak % 3 igo dira. *Handizkako merkataritza eta Txikizkako merkataritza* azpisektoreetan, aldiz, salmentak hiruhileko artean % 0,7 eta % 0,4 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko merkataritzaren indizea. Behin-behineko datuak. 2024/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-2,1	-0,1	-2,1
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	9,6	3,0	9,6
Handizkako merkataritza	-4,9	-0,7	-4,9
Txikizkako merkataritza	-0,8	-0,4	-0,8
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-4,7	-1,3	-4,7
Bizkaia	-2,1	0,4	-2,1
Gipuzkoa	-0,7	-0,3	-0,7
ENPLEGUA	2,2	0,5	2,2

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Maiatzaren 16a

Iturria: Eustat. Merkataritzaren indizea

Hiru lurralde historikoetan izan dira negatiboak salmentak urte artean eta prezio konstanteetan. Araban, salmentek % 4,7 egin dute atzera, Bizkaian % 2,1 eta, azkenik, Gipuzkoan salmentek % 0,7 egin dute behera, 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean.

2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean, aldiz, salmentak % 0,4 gehitu dira Bizkaian; Araban eta Gipuzkoan, aldiz, % 1,3 eta % 0,3 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko *Merkataritza* sektoreko enplegatuen indizea % 2,2 igo da 2024ko lehen hiruhilekoan, 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean. Aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,5 izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 85,1eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62